



Prentsa-oharra: 2026ko Mendialdeko Azoka Ibiltaria

DATA BERRIAK MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIARENTZAT

Araitz bailarako Arribe herriak emango dio hasiera **Mendialdeko Azoka Ibiltariaren** edizio berriari datorren **2026ko apirilaren 19an, 11:00etatik aurrera**.

2020an sortu zenetik izan duen ibilbideari eta filosofiari leial, azokak **zazpigarren edizioa** beteko du aurten, helburu argi batekin: **Mendialdeko eskualdeko ekoizle eta artisauen sasoiko produktuak sustatu, ikusgarri egin eta merkaturatzea**.

Azoka hau **sustapen eta salmenta zuzeneko gune gisa sendotu da**, bisitariei bertako produktu onenetako batzuk gerturatzeko aukera emanez. Produktu horiek **modu jasangarrian eta arduratsuan ekoizten dira**, eta bereziki baloratzen da **tokiko lehengaien erabiler**a.

Ekimen honek, gainera, **ingurunearekiko kontsumo arduratsu eta kontzientea sustatzen du**, landa-eremu hauetako paisaia, ekonomia eta kultura zainduz.

Azoka hauetako postuek **landa-kultura eta nekazaritza-abeltzaintzako jardunbideak** islatzen dituzte, gure gaur egungo lurraldea marraztu duen bizimodu baten adierazle. Horien bidez, **tokiko produktuen eskaintza anitza eta zapoetsua** aurki daiteke: sasoiko fruituak, gazta, ezti, taloa, hestebeteak, haragia, pateak, ogia, arrautzak, esnekiak, besteak beste.

Eskaintza agroalimentario horri **eskualdeko artisautza-postuak** ere gehitzen zaizkio, egurrezko, zeramikazko, metalezko edo ehungintzako lanekin.

Bost azoka eta horiei lotutako ekitaldiak

Edizio honetan, antolatzaileek urrats bat gehiago eman nahi dute, **landa eta nekazaritza-abeltzaintza munduarekin lotutako jarduera osagarriak** gehituz. Helburua da **publiko berriak erakartzea eta azoka bisitatzen dutenen esperientzia aberastea**.

2026rako aurreikusitako egutegiak bost azoka ibiltariak **gai jakin bateko ekitaldiekin** lotzen ditu:

- **Apirilak 19 – Arribe (Araitz):** Azoka + Artzainen usadioak
- **Maiatzak 17 – Lekunberri:** Azoka + Latxa arrazako ardi-ar genetikoaren V. Enkantea
- **Ekainak 28 – Goldaratz (Imotz):** Azoka + Xenden Eguna
- **Irailak 13 – Leitza:** Azoka + XXI. Talo Eguna
- **Urriak 11 – Areso:** Azoka + V. Emakume Artzainen Eguna



Kasu batzuetan, azoka **jadanik sendotuta dauden ekitaldiekin** bat egingo du, hala nola **Leitzako XXI. Talo Egunarekin** edo **Larraungo Latxa arrazako ardi-ar genetikoaren V. Es-tatuko enkantearekin**. Beste kasu batzuetan, berriz, **ekimen berriak** gehituko dira, hala nola **Araitzeko artzaintzaren ohiturei eskainitako jardunaldia**.

Azoka guztiak **igandetan egingo dira, 11:00etatik 14:00etara bitartean**.

Eskualde mailako ekimena

Ekimen honen antolaketan **Mendialdeko hamar udalerrik** hartzen dute parte: Araitz, Areso, Basaburua, Betelu, Imotz, Goizueta, Larraun, Leitzeta eta Lekunberri.

Udalerrri hauek **herria txandakatzea adostu dute**, ekitaldien egutegia modu orekatuagoan banatzeko.

Ekimenak, gainera, **Cederna Garalur eta Plazaola Turismo Partzuergoaren koordinazio teknikoa** du, baita **Mendialdeko baseritarren HABELARTE** elkartearen eta tokiko kontsumo taldeen babesa ere: **Araizko Zaporeak, LeitzEKO eta Bertatik Bertara Dina-mika**.

Bestalde, ekimen hau **Nafarroako Gobernuaren Zirkuitu Laburren ekitaldien programara aurkeztea aurreikusten da**, bertan lankidetzaz izateko asmoz.

Arribeko azoka (Araitz)

2026ko Mendialdeko Azoka Ibiltariaren lehen hitzordua **apirilaren 19an izango da Arriben**, artzaintzaren munduarekin lotutako programazio bereziarekin.

Aurrez aurreikusitako jardueren artean **Mendialdeko gazten dastaketak eta gazta lehiaketa** nabarmenduko dira, eskualdeko gaztagintza tradizioa balioan jarriz.

Azokak **elikagai-postuak** izango ditu: taloa, gazta, ezti, haragi-produktuak, hestebeteak, pateak, ogia, arrautzak, artisau garagardoa edo olio. Horiez gain, **tokiko artisautza-postuak** ere egongo dira, egur, zeramika, metal edo ehungintzako lanekin.

Bisitarietako **tokiko produktu onenen erakusleihu bat** eskaintzen dien hitzordua da, modu ja-sangarrian eta gertuko lehengaiekin egindako produktuekin, eta **kontsumo arduratsuen balioa eta turismoaren, lurraldearen, kulturaren eta landa-paisaiaren arteko lotura** ezagutzeko gonbidapena egiten du.

Lekunberri, 2026ko martxoaren 31a